



AHOZTAR ZELAIETA
KAZETARIA

Pradales kolpez kolpe

ñigo Urkullu lehendakariaren ordezkotza "ezezaguna", Imanol Pradales, "ustekabekabaz aukeratua", "70. belaunaldiko" alderdikidea da. Talde horretakoak dira Unai Rementeria, Gorka Urtaran, Eneko Goia eta Ana Otaduy. Bizkaiko Foru Aldundiko "obren diputatu" honek proiektu faraoikoak mamitzeko ardura hartu du azken urteotan, besteak beste, Supersur, Guggenheim Urdaibai edo La Avanzadaren estaltzea.

Asti Leku Ikastolan Urkulluren ikasle ohia izandakoak, Deustuko Unibertsitatean irakasle zela, 2007an eszedentzia eskatu, eta Bizkaia Xede irabazi asmorik gabeko elkarteko zuzendari bilakatu zen. Lehen marka bere kudeatzaile profileen, elkartearen modus operandia eta aldundiaren bezerokeria gaitzetsi baitzituen Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak. Bizkaiko Foru Aldundiaren diruarekin susatutako elkarte horrek aldi berean dirulaguntzak enpresa batzuen patriketara bideratzen zituen. Onuradunen artean, Deustuko Unibertsitatea, Iberdrola, Senner eta ITP armamentistak, edo Deloitte eta Idom, azken bi horiek aholkularitzen kartelaren kideak.


Pradales aldundira heldu zen José Luis Bilbaoren, paradisu fiskalei buruz ezer ez idaztea zin egin zuen diputatu nagusiaren eskutik. Jóvenes Burukides Bizkainos belaunaldiaren "anaia nagusia" da Bilbao, hain zuzen, Urkullu buruzagi zela, An-

doni Ortuzarren laguntzarekin, Xabier Arzalluz baztertu, eta geroago, Juan José Ibarretxe zokoratu zuen taldea.

2011n, Pradales Ekonomia Sustatzeko diputatu bilakatu zen. Pradalesek Kanpo Sustapeneko zuzendari Gabino Martínez de Arenaza izendatu zuen, Alonsotegiko EAJko alkate ohia, ustelkeriagatik inputatua. Pradales diputatu aukeratu zutenean, BBVA, Banco Santander eta Mapfreko akzioen jabe zen, eta, geroago, Sacyr enpresaren akzioak erosi zituen. Zazpi urte lehenago, eraikuntza enpresak 13.000 euro eman zizkion Alfredo De Miguel burukideari, ustelkeriagatik kondenatua.

Sacyr 25 urtez aritu zen eraikuntza kartel batean. 2007. eta 2012. urteen artean, Sacyr izan zen Bizkaiko Foru Aldundiarekin lan egin zuen kartel horretako enpresa bakarra, guztira 184 milioi euroren truke. Garai hartan ere, Sacyr Nervión taldeak (Sacyr eta Nervión Industries arteko aliantza) beste kartel bateko kide zela, energia eta petrokimika sektoreko enpresei ematen zien zerbitzua. José Alberto Pradera, paradisu fiskalen aferari lotutako diputatu nagusi ohia, Nervión Industries-eko kontseilari zenean, Pradalesek Sacyr-en akzioak erosi zituen, eta, enpresa horien aliantzaren ondorioz, Sacyr Nervión taldea Repsolentzat hasi zen lanean, Josu Jon Imaz EAJko presidente ohiaren konpainiarentzat. ●

Dolua eta kalitatezko osasun-sistema publikoa



EVA PEREZ-PONS
ANDRADE

Duela hilabete batzuk, ahizpak bost hilabeteko haurdunaldia eten behar izan zuen umekiak buruan zekarren deformazio baten ondorioz. Malko artean hartu zuen erabakia, eta berria eman eta bost egunera umea (Xoán) erditzen zegoen Gurutzetako ospitalean (garapen-maila horietako umekiak erdituz abortatzen dira).

Abortuak iraun zituen ordu horietan guztietan, tratu ikaragarri ona izan genuen emaginaren eta ginekologoaren partetik. Ezin berdina esan, ordea, Gurutzetako zerbitzuaz; ama berrien atalera zuzenean eramanez, laugarren solairuko oherik gabeko gela batean sartu zuten ahizpa, eta

orduetara, behin epidurala eskatuta, jaitsi; ahizpa zeliakoa izanik, ezin izan zioten ospitaleko elikagairik eman, denak, jogurt batek salbu, glutena zeukalako; eta duela gutxira arte borrokan ibili gara Xoánen gorpua aurkitzeko. Hasieran, organo kontsideratu eta bota zutela komunikatu zioten ahizpari, nahiz eta 2016tik gurasoek eskubidea duten, edozein dela umekiaren garapen-maila, gorpua hartu eta agur esateko. Duela gutxi jakinarazi diote gorputza agertu egin dela.

Dolua egitea eskubidea da, eta horren bermea kalitatezko osasun-sistema publikoari lotuta dago. ●